6963

EBAZPENA, 2008ko uztailaren 21ekoa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Zerbitzu zuzendariarena, RBE3-00107/08 espedientean Erika Ibarreche Ledo andreak aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa ebazteko dena.

AURREKARIAK

1.– Erika Ibarreche Ledok 2008ko urtarrilaren 17an emantzipaziorako oinarrizko errenta eskatzearekin batera hasi ziren jarduketa hauek.

2.– Gipuzkoako Lurralde ordezkariaren 2008ko otsailaren 25eko Ebazpenaren bidez gazteen emantzipaziorako oinarrizko errenta jasotzeko eskubidea aitortzen da.

3.– Erika Ibarreche Ledok 2008ko martxoaren 3an gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu zuen eta bertan 600 euroko mailegua eta abalaren gastuetarako 120 euro eskatu zituen.

Aurrekari horietan oinarrituz, hona hemen

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Zerbitzu zuzendaria da aztertu beharreko gora jotzeko errekurtsoa ebazteko organo eskuduna, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa ezartzen duen Euskko Jaurlaritzaren azaroaren 15eko 373/2005 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

2.– Errekurtsogileak interesduna dela egiaztatu du, herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 31. artikuluan ohartemandako ondorioetarako. Bestalde, arau horren 114. eta 115. artikuluetan zehaztutako epean eta eran aurkeztu da errekurtsoa.

3.– Espediente hau izapidetzean gazteen emantzipaziorako oinarrizko errenta arautzen duen azaroaren 2ko 1472/2007 Errege Dekretuan, xedaturiko prozedura arauak, arau osagarriak eta bat datozen arauak ikusi dira.

3. artikuluan ezartzen duenez honako maileguak egin ahal izango dira: alde batetik, 600 eurokoa, behin bakarrik eta interesik gabe, errentamendua bermatzeko emandako fidantza amaitzen denean itzuli beharko dena; eta, beste aldetik, 120 euroko diru-zenbateko bakarra, errentamendu bermatzeko abalista pribatu batekin abala eratzeko.

Espedientean jasotako agiriak aztertu ostean, ikusi egin da diru-laguntzaren eskabidean honako lauki hauek ez daudela X batez markatuta: «Fidantzarako 600 euroko mailegua eskatzea» eta «abal-gastuetarako 120

6963

RESOLUCIÓN de 21 de julio de 2008, del Director de Servicios del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se resuelve el recurso de alzada presentado por Dña. Erika Ibarreche Ledo en el expediente RBE3-00107/08.

ANTECEDENTES

1.– Las presentes actuaciones tienen su origen en la solicitud de renta básica de emancipación formulada por Dña. Erika Ibarreche Ledo, con fecha 17 de enero de 2008.

2.– Con fecha 25 de febrero de 2008 recae Resolución del Delegado Territorial en Gipuzkoa por la que se reconoce el derecho a obtener la renta básica de emancipación de los jóvenes.

3.– Con fecha 3 de marzo de 2008, Dña. Erika Ibarreche Ledo interpone recurso de alzada, solicitando se le conceda el préstamo de 600 euros y los 120 euros para gastos de aval.

Sobre la base de estos antecedentes, se formulan los siguientes

FUNDAMENTOS

1.– El Director de Servicios del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales es el órgano competente para resolver el recurso de alzada que se examina a tenor de lo dispuesto en el Decreto del Gobierno Vasco 373/2005, de 15 de noviembre, por el que se establece la estructura organica.

2.– La recurrente acredita la condición de interesada a los efectos prevenidos en el artículo 31 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre sobre Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y el recurso ha sido interpuesto en tiempo y forma señalados en los artículos 114 y 115 de la misma norma.

3.– En la tramitación de este expediente se han observado las normas procedimentales contempladas en el Real Decreto 1472/2007, de 2 de noviembre, por el que se regula la renta básica de emancipación de los jóvenes, normas complementarias y concordantes.

En su artículo 3 establece que se podrá conceder un préstamo sin intereses, de 600 euros, por una sola vez, reintegrable cuando se extinga la fianza prestada en garantia del arrendamiento, y na cantidad única de 120 euros si se constituye aval con un avalista privado cono garantia del arrendamiento.

Examinada la documentación del expediente se constata que en el impreso de solicitud de la ayuda no está marcado con una X la casilla «solicitar para fianza un préstamo de 600 euros» y «solicitar los 120 euros

euro eskatzea». 2008ko otsailaren 21ean aurkeztutako errentamendu-kontratuan ere ez ditu diru-laguntza horiek eskatzen; beraz, errekurtso bidez ezin dira eman 600 euro fidantzarako ez eta 120 euro abalerako ere.

Azaldutako oinarriak, aipatutako xedapenak eta horiekin bat datozenak eta, oro har, aplikagarriak diren gainerakoak ikusita, hauxe

EBATZI DUT:

Ezetsi egitea Erika Ibarreche Ledok aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa. Errekurtso hori Gipuzkoako lurralde-ordezkariak RBE3-00107/08 espedientean emandako ebazpenaren aurka aurkeztu zen, zeina berretsi egiten baita, zuzenbidearekin bat datorrelako.

Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du; hala ere, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Donostia-San Sebastiángo Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian. Horretarako epea ebazpen hau jakinarazten den egunaren biharamunean hasi eta bi hilabetekoa izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko uztailaren 21a.

Zerbitzu zuzendaria,
MIKEL ARANA ECHEZARRETA.

para gastos del aval». Tampoco, con el contrato de arrendamiento, presentado el 21 de febrero de 2008, solicita estas ayudas, por lo que via recurso no procede conceder ni el préstamo para la fianza de 600 euros ni el aval de 120 euros.

A la vista de los Fundamentos expuestos, las disposiciones citadas y demás concordantes y de general aplicación,

RESUELVO:

Desestimar el recurso de alzada interpuesto por Dña. Erika Ibarreche Ledo contra Resolución del Delegado Territorial de Gipuzkoa recaída en el expediente RBE3-00107/08, en cuyos términos ajustados a Derecho ha de confirmarse.

La presente Resolución agota la vía administrativa, si bien cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de los de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la notificación de esta Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de julio de 2008.

El Director de Servicios,
MIKEL ARANA ECHEZARRETA.